



ostantza

FITO RODRIGUEZ



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

FITO RODRIGUEZ

Ostantza

Artadin,

goizero, nirekin batera gosaltzera

etortzen zen lagun horri

Tren geltokiko plaza beste edozein estaziotako irteera bezain itsusia zen, ezin zitzaion plaza ere esan. Itsatsitako eraikina, errebueltan egiten zuen bidegurutzeko ziztrin bat eta tunel moduko ahoa besterik ez zen. Tunel horren irteeraren gainean, agure batek ikusteko moduko handiz izkiriaturiko hizkietan herriaren izena agerian: zumaia empalme. Eta bisitariari irudikapen dibertigarriak eta malenkoniatsuak ematen zizkioten erabilitako letren tamainak eta polisemia lubrikoak. Izenaren parean, kantoian bertan, “Lagun-Artea Bar” kartela zegoen oraindik eta irriño batez “Betiko lagunarteraino itzuli naiz” pentsatu zuen.

Bidearen beste aldetik Urola ibaiaren kirats ustela zetorren, eta hondoan laino artean galtzen zen San Miel Artadiko tontorra, ipar-mendebalera, ahaztutako itsasoaren aldean, inoiz ahanzterik ezin izan ez zuen herria.

Baserritarrentzat ilunabarra dena ostantza izaten da lehorrera datorren marinarentzat. Une hartan heldu zen gure gizona, aspaldidanik, berrogei urte luze jada, begi bistatik galdua zuen portura.

Beraz, esan dezagun, garaiera ertaineko gizasemea irten zela estazioko auzora, potxolo samarra eta ia ile-urdin. Dena anodinoa zuen, arropa, aurpegia, piura. Norbaitek deskribatu behar izan balu, adibidez eleberri batean, balizko prozedura polizialean edo epaile baten aurrean, kostatuko zitzaion haren irudia zirriborratzea. Izaki iheskorra zen, ia ikusten ez den horietariko bat. Haren presentzia lainoaz, ametsez edo aho batek kanporatzen duen hatsaren lausoaz eraikia zen. Milioika pertsonaren antza zeukan.

Udazken beteko arratsalde gorrian euria ari zuen eta ama ez zegoen aldarte onean. Txirrinak jo zuenean, etxekoandreak agindua, ahapeka, aditu zuen semeak.

—Pello, zoaz atea irekitzera, azkar!

Ateaz bestaldean aitona zegoen, aspalditik familiaren bizitzatik desagertutako prakaduna, zaharragoa eta ilea urdinduta. Baina bera zen, dudarik gabe. Ustekabea eta guzti, “Kaixo, Attuna Teles!” diosala Pellok.

Telesforo zuen izena, ez gustukoa ordea. Gehienek Beltza esaten zioten, gertukoek Teles.

Ama, hori entzundakoan, ateraino gerturatu zen poliki.

—Etorri zara!

—Ez, baina banator... Sar naiteke?

—Jakina, horrenbeste denbora etxetik kanpo eta orain atarian geratu behar?

—Nolatan, aita? —jarraitu zuen.

—Noizbait behar zuen eta hemen naukazu, polit hori... —esan zuen aitonak, alaba Anamari amultsuki estutuz.

—Egoera egokiena zein ote den ezin da inoiz asmatu baina bizitzan, badakizu, erabakiak hartzeko behar bezalako ausardia puska batez jokatu beharra dago beti —gehitu zuen Telesek.

—Horrekin hemen egoteko erabateko ziurtasunik ez duzula izango esan nahi al duzu? —Anamarik.

—Erabateko ziurtasunik? Nola dakigu hori ba ote dugun inoiz? —Telesforok.

—Aita, mesedez! horrenbeste denbora hemendik at egonda horri buruz zerbait ikasita eduki beharko zenuke honez gero...

—Bada, horixe bera ikasi dut, hain zuzen ere, ene xarmanta, erabateko ziurtasunik ez dagoela ezertan. Egia esanda, hona etorri aurretik, urratsak emanak ditut. Abokatuek nire kontra ez dagoela ezer diote, juridikoki alegia. Zegoena preskribituta omen dago eta ez da auzi berririk espero baina, esan bezala, alde horretatik edozein gauza gerta daiteke eta...

—Eta???

—Eta, legez bestalde, polizialki, haiek egin dezaketena ezin da erraz asmatu. Edozein gauza egiteko prest egon dira beti eta orain ere berdin dihardute.

—Eta hi, Pello, nola hago? Zeinen handia! Zenbat urte?

—Hori ere ez al dakizu? —Anamarik.

—Utzi asmatzen, hamazazpi edo?

—Edo? —Anamarik.

—Asmatu duzu, Attuna! —poztu zen Pello.

—Bai, zure aitona oso azkarra izan da beti, azkarregia esango nuke nik —ihardetsi zuen Anamarik.

Gorria arre bilakaturik ilundu zuen, kanpoan ez zegoen jada argiaren arrastorik eta Anamarik argiak piztu zituen. Etxe txikia zen. Gizarte babespean eraikitako bi zuloko habia. Sukaldegongelaz gain gain lotarako txokoa eta komuna. Amak egongelako sofan egiten zuen lo baina Pello bere gela

txikiaren jabea zen, erabat. Hor zuen bere erresuminaren erresuma. Nerabezaro luzea ez da bizitzaren sasoi gozoena eta Pellok ez zuen inor gela barrura sartzen uzten.

—Kostatu zait zuen etxea topatzea. Hau dena ez zen horrela lehen. Dena zen mendia eta baserriak, eta hemen Hotel Amaia zegoen horrenbeste etxerik egon beharrean. Gure etxea zena ere, bota zutena, ez zegoen hemendik urruti, baina tokia, berdina izan arren, ezin esan berdin dagoenik.

—Bai, denborak ez du bere bidea alferrik egiten, aita... Hemen geratzeko asmorik al duzu? Ikusten duzunez etxe honetan beste batentzat tokirik ez baitago.

—Nirekin gera daiteke —Pellok.

—Nolaa? zure gelan ez duzu inor sartzen uzten... neronek ere sarrera debekatua daukat eta!

—Bueno, beste tokiren bat aurkitu bitartean nire gelan moldatu gaitzke —jarraitu zuen bilobak.

—Lasai, ez dut enbarazurik sortu nahi eta, gainera, aspaldidanik ikasia daukat nire bizitzaz arduratzen. Tokiren bat edo beste bilatuko dut lotarako eta, ondoren, baita bizitzeko ere —arrapostu aitonak.

—Zuk ikusi, baina, niri behintzat, ez didazu inolako enbarazurik egingo, eta biok egon gaitzke nire gelan —Pellok.

—Aizu, aita, ez gaizki hartu, baina ez dut uste hemen hirurok bizitzeko behar bezalako baldintzarik daukagunik. Hala eta guztiz ere, taxuzko zerbait aurkitu bitartean, eta Pello konforme baldin badago, egokituko garelakoan nago, ze erremedio!

—Eskertzen dizuet, bikote, ikusi duzuenetz etorri berria nago, eta ongi etorriko zait lasaitasun egun pare bat hartzea nire burua kokatu ahal izateko.

—Bizitza osoan zure burua kokatzen nahikoa lan izan duzu, ez dakit sasoi hauetan horrelako lanik hartzeko pronto zaudenik, baina, batek daki...

—Zu ere nire ezpalekoa beti, nonbait, bizkorregia zara gero, Anamari.

—Lasai, Attuna, biok egingo dugu lo elkarrekin, txikitan bezala. Ze, bitartean mokadu bat hartuko al dugu?

—Benetan ezin dudala sinetsi, nik, egunero zurekin bizitza ateratzen ari dena, zure gertukoena, ezin dut zure gelan sartu inoiz, sofaohe madarikatu batean ari naiz bizkarra izorratzen eta behin, nire aita datorrenean, berarentzat gela eta ohea irekita dauzkazu?

—Lasai, neska, Pello eta biok aspaldiko lagunak gara eta! —Telesek.

—Ez naiz neska gero, emakumezkoa naiz aspaldi... eta zuei bioi bideak errazten kokoteraino naukazue.

—Ados, nik prestatuko dut otordua —Telesek.

—Aita, etxe honetan ardorik ez dago, badakizu.

—Ondo da, nik zahatoa ekarri dut.

—Beti bezala!

— “Ilunabar eder eta gorri hau galtzen ari gera
Gaur arratsean inork ez gaitu ikusi eskuak batera
Gau urdina erortzen denean munduaren gainera
Gure leihotik joango gara urrutiko muinoetako festara
Harea bezala, esku artean eguzki-ziprizona joaten da”.

—Zer da hori, zure bertso eskas haietariko bat, aita?

—Ez, Pablo Nerudak antzerako zeozer bota zuenaren oroitzapena. Badakizue, burutsua izaten da egunak amaitzea. Etengabeko gurgila. Eguna eta gaua, eta berriro eguna. Hain erraza dirudi, baina oso zaila izaten da. Eta askotan, naturak bere mugak jartzea erabakitzen duen tokietan, egundokoa lehertzen da: Ilunabarra. Ez da erraza izaten iluntzearena ulertzea. Bere denborak, neurriak eta koloreak ditu, eta, gainera, ez dago bakar bat ere beste baten berdina denik, zientzialariek xehetasunak bereizten eta izaera isolatzen jakin behar badute ere ezin dute argitu ahal ilundea; beraz, ilunbista da bakoitza baina besteekiko ezberdina izatea zertan datzan... nork daki. Aspertzen ari zarete?

—Bai horixe, Attuna. Goazen afaltzera.

—Zuk, Pello, ez edan ardorik —amak.

—Eta nik?

—Zuk, aita, nahi duzuna egin, bizitza osoan ez duzu besterik egin eta!

—Attuna, zergatik daramazu beti zahatoa?

—Istorio zaharra duk hura, ni bezain zaharra bederen, egunen batean kontatuko diat.

—Attuna, nik ere buruan badauzkat ilunabarreko bertso batzuk.

—Zeintzuk baina?

— “Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit
eta higan nauk.
Zuhaitz biluziaren
gerizpe orpoan doa,
orbelaren hilobi,
horiz eta gorriz,
dena lokarturik”.

—Hara!, gure Benitok udazkenari kantatu ziona. Arrazoia duk, Pello, udazkena urtearen ostantza diagu.

—Aizue, afaria ez da bakarrik egiten —Anamarik.

—Sukaldean lagundu dezaket? —Telesek.

—Ez gara kabitu ere egiten!

—Mahaia jarri? —Attunak.

—Hori Pellok egiten du, baita jaso ere.

—Zahatoaren ondoan eseriko naiz, bada...

—Bai, zuk dakizun modura.

Ez zuten asko itxaron behar arrautza frijituak eta magrak mahai gainean prest egon arte. Tomate pixka batez lagundurik giro gazi-gozoan elkartu zen aspaldiko partez familia osoa, senideen arteko bilkura hartara gerturatu ahal izateko aukera izan zuten hirurak behintzat.

LOGELA

Aitonak oraindik ez du bilobarekin lo egiteko ohiturarik eta esnatzen da maiz. Baldarra da. Halere, bilobak ez du zurrunga egiten. Horrela berriro loak hartzea lortu du, baina lehenago berak zeruertzari eta urruntasunari begiratu die, aspaldian ikusten ez den zituen horiei. Euria gogor hasi du. Ura leihoaren kristaletik irristatzen da. Itxura denez, herria lausotu egiten da formak luzatzen dituen pantaila horren atzean, eta koloreak mozkortu eta nahasten ditu. Ez du aurkitzen bere alabak ohearen ondoan utzi dion ura. Hain ederra izan da eguna... Ilunabarreko zirimiriak lurreko usain guztiak berriro lotzen ditu bere bizipenez.

Atzo alde egin izan balu bezala gogoratzen da denaz. Zegoen guztia bere barruan gorde du, usainak, kresala batik bat, koloreak, euria, basoak, hitzak, doinuak, haurra zenaren arnasa pausatua... begiak sabaira altxatuz, malkotan itsututa, bere sudurra zarataz ari da.

Begiak itxi eta loak harrapatzen du, bizitza luzean lagun izan dituen sentsazio-bide errepikakorrak berriro dastatuz. Bat-batean, aurpegi maitatu guztiak etortzen zaizkio burura, eta, haien oroimenean, berak ezagututako hainbat herrialdetako lurraren usaina, basoarena, zeruarena eta suarena, animalien, loreen eta gorputzen lurrina, usain guztiak batera, autoek eta itsasontziek botatakoak, haien kea, motorren kiratsa, frijituaren atxona, espaloira botatako fruta ustelaren afoinua. Hala eta guztiz, hemen, bere herrian, usainak, benetako usainak dira berarentzat, gatzak, airea, arrain lehorra, lur bustia, pikea, algak eta ura daude. Usain onak! Lehen aldia da herrialde hura usain berezia duen zerbait lurrin bihurtu dela berarentzat. Faltan botatako usain multzo horrekin liluratuta dago. Bihotzaren sakonean, leku hartara itzuli ahal izana eskertzen du. Dena usnatuz lo gelditzen da. Zaharrak ez du oroiminik sentitzen lasaitasuna baizik eta, bat-batean, erabateko gauak heltzen dio eta ametsen amildegian galdu.

Berehala, ordea, logela oihuz betetzen dela sentitzen du. Alaba esnatu eta gainerakoei jaikitzekeo deiadarraz ari da, orroa eta guzti. Egunsentian ondo etzanda geratu nahi zuen koltxoian, bilobaren ondoan ea berriro egingo zuen lo, baina alabak ez dio aukerarik emango.

—Pello, esnea berotu!

—Banoa.

—Aita, beti bezala, zuk nahi duzuna egin ezazu.

—Ez, ni ere banoa, kaferik ba al dago etxe honetan?

—Bai, kanpokoentzat!

—Hara, ni ez naiz kanpokoa baina kafe huts bat hartuko nuke...

—Esnerik ez?

—Esnea haurrentzat da eta etxe honetan ez dago haurrik.

—Adin tartea badago ere, gu zure haurrak gara.

—Hala izango da baina umeak izateari aspaldi utzi diozue...

—Halere, gure etxean esnea hartu ohi dugu eguna hasteko eta zuk, etxe honetan, kafea hartzerik baduzu.

—Ongi da.

—Attuna, ogi txigorturik nahi?

—Gailetak nahiago.

—Ez dauzkagu.

—Ogi txigortua, beraz.

—Olioz edo gurinaz?

—Zuek nola hartzen duzue?

—Guk olioz.

—Bada, nik gurinaz hartuko nuke, ba al dago?

—Noski, zerorrek hartu frigitik.

Beti saiatzen zen zetorren giroa zeruertzerara begira definitzen, eta orduan iritsi zen egunsenti hura. Lehen eguzki-izpiarekin bat egin zuen, itsasoak ezinezko sarrera egiten duen lekura begira, goiz hartako kolore-aniztasunei so. Eguzkiak motel irten zuen, eta gustatu zitzaion etxetik ikusi ahal izana bor-bor egin zuenean. Etxea hainbat musika-tresnaren doinuek hartu zutela zirudien, ihiek gogor eusten zioten haizeari eta zuhaixkak handitu egiten ziren, hegaztiekin lehen argietan nabigatzen zuten. Bide onean ari zela bazekien. Bakean zegoen. Baina ilunabarra nahiago.

—Zer dakizue Aspirinoz?

—Zein da Aspirino? —Pellok.

—Zer dakidan Aspirinoz? —Anamarik—. Hil zela, bere nagusia bezala eta farmazia saldu zuten. Orain beste jendeak kudeatzen du Botika-Zaharra eta, toki bertsuan egon arren, erabat aldatuta dago kanpotik eta barrutik.

—Ez dakit zerura edo infernura joango ote ziren Aspirino eta haren nagusia baina, edozein tokitara joatea ere, kostatuko zitzaien.

—Zergatik, Attuna?

—Ez egin kasurik, seme... herrenak ziren biak; eta, bide batez, zure txantxa txarrak alde batera utzita, zeu ere herren zabiltzala konturatu naiz.

—Bai, belaunetan min dut.

—Belaunaldiagatik izango da, aita.

—Bai horixe, belaunaldian min dut.

—Utzi hitz joko merkeak, zuk txeko medikua behar duzu eta, izatekotan, belaun berriak.

—Zapata egokiak behar ditut eta, medikuak, berriz, ahalik eta urrutien.

—Begira ze zapatilak ditudan nik, Attuna, super erosoak dira.

—Bai, eta super garestiak ere.

—Berdin da, zapata berrien bila joango naiz gaur goizean.

—Attuna, nahi baduzu, eguerdirako aterako naiz ni eskolatik eta nireak non erosi nituen erakutsiko dizut.

—Ondo zagok hori! Hire bila joango nauk, bada. Non zagok hire eskola?

—Narrondoko errepidearen alboan.

—Bazkaltzera etorriko zarete? —Anamarik.

—Bai, horixe.

—Ordu bietan, beraz.

—Ados.

—Konforme.

Tristura eta bidaiaren haserrea jite atseginak ordezkatu ditu. Itxaropena. Sosegu gozoa, bildutako aldartea lautzea. Aitona itsasoaren aurrean eserita dago une batez. Itsasoa, eguzki-ordu zoragarri honetan, urdin-bizi dirdiratsua da. Telesen izpirituan gogobetetasuna nabari da. Azaleko behatzaile batek uste izango du aitona zoratuta begiratzen ari dela inguruari behar bezalako

arretaz kasu egin gabe. Ez al dira bere hartan pisutsuak eta eskrupulu sinesgaitzak sentitzen dituenak?

Ez du ezer ezagutzen, alegia. Garai batean buruz zekizkien tokiak eta toki izenak desagertu dira. Larreak, harrobiak, labarrak, arroka-tokiak, baserriak eta bordak, kaleak, bidezidorrak: Iruarriandietea, Bizkarraga, Igarategi, Izustarri, Arizmendi, Aizpurua, Maluzarreta... izen haiek ia bere buruan besterik ez daude.

Haien ordeaz, Puntanoetan edo Patxita Etxezarreta aldean bezala, bide zabalak eta etxe-orratz bat edo beste. Bere betiko herria bere baitan besterik ez dagoela hasia da konturatzen. Zegoenak ez du iraun, berau bezainbeste bederen. Oraingo honetan, dena garbiagoa da, kaleak zuzenagoak, eta haietan ia jenderik ez dago. Diseinatzaile baten mahaian sortutako auzo berrietan auzokorik ez.

Hodei urtu ezinak zeruertzean, zain solteak hosto baten atzealdean. Eta, hala ere, aitonaren errealitate barnekoi hori errealitate sendoa da Beltzaren adimenarentzat. Munduko gauza gordinei, latzei eta bortitzei lotuta, nola epaituko ditu aldaketa horiek? Eta ezer sakonagoa, zirrargarriagoa, dramatikoagoa eta altuagoa da Telesen buruan gertatzen ari dena: ez du hemen egon nahi, nahiz eta bizitza osoan hona itzultzeko borrokan bizi.

Parkera joan da eta banku batean eseri. Bakarrik. Ia bere bizitza osoan bezala.

Parke polita da, ederra, handia, zoragarria, umeentzat dibertigarria, helduentzat ere jolastoki asko dituena, lasaia eta inperzonal. Halere, ez zegoen kontent. Beste sasoiaren beste nonbaiten sentitutako bakardadeak bustitzen dio soina eta, eserita ere, izerdi patsetan dago.

Helduek erabili beharreko erreminten gunera hurbildu eta, berehala zurbildu da zeharo: Zarautz hor dago... lehen izandako bezala gizasemeak handia izaten segitzen du baina, beti baldarra izateagatik edo, era traketsen dabil orain makuluek lagundurik. Beltzak, aldiz, hala ibilera herrena, nola itxura bera ere disimulatu nahian, buelta eman du eta bilobarekin adostutako zitara joateko era zurrunean kimatutako gereziondo japoniarrek marrazten duten bide tartera zuzendu ditu urratsak, askotan egin modura, oharkabe desagertuz.

Villa Pilarren atzeko basoa non zegoen bazekien eta inguru guztia oso aldatuta egon arren noranzko hura hartuz Pelloren eskolara gerturatzen joan da. Batimendu handia zen, dena porlanaz eta adreiluz eginda, eta hesitua. Berak ezagututako kartzelak etorri zitzaizkion gogora eta, handik

haurrak eta gazteak irteten ikusterakoan, berriz, Unamunok zioena ere burura etorri zaio: eskolatik ateratzen diren ikasleen burrunba askatasunaren aldeko orroa besterik ez dela, hura bai Orroaga, eta ez Azkizupean dagoena.

Horrenbeste gazteren artean Pellori antzematea ezinezkoa zitzaion baina, zorionez, Pellok berak aurkitu zuen aitona. Lagunduta zetorren.

—Kaixo, Attuna!

—Zure aitona al da? Ez nekien aitona zenuenik... Nola izen du? —ingurukoek.

—Duela gutxi etorri da kanpotik aitona Teles.

—Kaixo, aupa... bon, bagoaz?

—Nora zoazte?

—Bakea eman, faborez... Goazen, Attuna.

—Lagun asko dauzkak hik.

—Dena jakin nahi duten begiluze nazkanteak besterik ez dira. Haiei zer inporta zaie, bada...!

—Nik parkean nire garaiko haietariko bat aurkitu berri diat. Zarautz deitzen genion baina zorionez ez duk konturatu ni haren ondoan nengoenik.

—Hobeto.

—Horixe. Ze, zapatak eroatera joango gaituk?

—Nireak bezalakoak nahi badituzu Odriozola dendara joan beharra daukagu, ba al dakizu non dagoen?

—Lehen Erribera kalean zegoan behintzat.

—Attuna, Trapaia tabernaren parean dago, etxetik gertu.

—Etxerako bidean baldin badago, primeran.

EGUERDIA

—Kaixo, Ama.

—Eguerdion, Anamari.

—Hauxe piura dakarkizuena biok!

—Ze ba? —aiton-bilobek.

—Futbol talde berean jokatzeko al duzue?

—Pentsatu dut nire hanketako minerako Pellorenak bezalako zapatilak onak izango zirela eta kolore berdinekoak aurkitu ditugu, gainera!

—Zuri ondo iruditzen al zaizu zure adinean bista ere kaltetzen duen fosforito koloreko holako zapatatza pareaz kalean ibiltzea? Txiribiton ematen duzu eta!

—Zein da txiribito handi hori?

—Ez zuan txiribito, Txiribiton baizik. Hire ama txikia zenean boladan zegoen pailazo handikotea zuan hura. Hire garaikoek Pirritx eta Porrotx baino ez dituzue ezagutzen...

—Ama, nire zapatilak niretzat onak badin badira zergatik izan behar dira txarrak Attunarentzat?

—Horixe bera esaten diot nik zure amari...

—Adin tartea da kontua, ez al zarete konturatzen?

—Bon, bazkaltzerik ba al dago? —aitonak.

—Goseak nago, ama.

—Eseri aurretik mahaia jarriko duzue, ez? Edo neronek egin behar dut lan guztia?

—Bagatoz, lasai.

Anamariren lo egiteko tokiaz gain sukaldegongela zen horretan zabaldu zuten mahaia aiton-bilobek. Basoak, txorkonak, attalak, nabalak, sardexkak eta koilarak. Aitonak zahatoa ekarri zuten eta ur pitxerra bilobak.

—Dilistak, aspaldiko partez! ederki!!! Nola egin dituzu? —aitonak.

—Dilistak, beti bezala! Ze nazka, ez dakizu besterik egiten? —bilobak.

—Begira: txorizoa sardexkaren hortzekin ziztatu eta ur hotzean murgildu dut jadanik sutan zegoen eltzean. Irakiten hasi denean txorizoa kendu dut botatako gantzak ez diezaien dilistei eragin. Bestalde, barazkiak maneatzeko erabiltzen dudana eltzean oliba olioia isuri eta sutan jarri dut ondoren. Tipulina, porruaren zuria eta azenarioa erantsi dizkiet eta ezitzen eduki dut pixka

bat kolorea hartu arte. Gatza bota, eta dilistak gehitu orduan, aurrez irakindako txorizoa gaineratu, eta gero ia ordubete egosten utzi dut. Ondoren, lehen prestatutako baratxuri-olioa isuri dut, txorizoa atera, eta, xerratan moztu eta gero, berriro bota dut.

—Ez dakit zure amak besterik egiten ba ote dakien baina, dilistak behintzat, bere ama zenak bezain ongi prestatzen badaki.

—Ez aipatu orain ama, mesedez, behar zenean, bera joan zitzaigunean, zu jadanik alde eginda zeunden eta zu gabe hil zen...

—Eta ni bera gabe, aizu! Niretzat ez zen gozoa izan. Aitzitik, alde egin behar izan nuenean ez nuen aukera handirik izan inori azalpenak emateko, eta gero beranduegi zen.

—Bai, eta orain berandu ere bada. Utz dezagun gaia.

—Nik ez dut gaia atera behintzat.

—Attuna, txorizorik emango?

—Bai, mutiko, har ezak nirea lasai. Niri ez zidak onik egingo.

—Eskerrik asko, Attuna!

—Bai, ekarri asko...

—Ez zara inoiz aldatuko? Zure zirtolariaren jiteak eta ezkererako joerak kaltea besterik ez digute ekarri zuri ez ezik baita guri ere.

—Bon, ardoaz hitz egin dezagun. Begira, zahatoak aldatu behar izan ditut baina, nire aldamenean, zahatoa beti.

—Zergatik, Attuna? Ardoa edalontzietan ez al zaizu gustatzen?

—Bai, Pello, ohitura duk, besterik gabe. Ni ibili naizen tokietan behar bezalako ardorik topatzea ez zuan erraza izaten. Edo oso txarra edota oso garestia ohi zuan... eta, egia esanda, niri otorduak uraz bustitzeak ez zidak onik egiten. Ardoa niretzat edabe magiko modukoa duk. Botika, alegia. Hari esker sendatu ditiat katarroak eta tripako minak, buruhaustea eta nekeak... Beraz, behar bezalako ardoaz ibiltzeko zahatoa lagun eduki diat beti.

—Nire lagun bategi ere zahatoa du, frigoan gordetzen du eta mendira koka freskoa eramaten du.

—Baina zahato haiek ez dituk nirea bezalakoak. Berriek plastiko poltsa bat zeramaten barruan eta nireak, betikoek bezala, pikea zeukak, besterik ez, eta ezin diat frigoan sartu. Ardotako zahatoa duk nik erabiltzen dudana.

—Gutxiago edateko balioko balu! —Anamarik.

—Balio dik, noski, eta gainera, zahatotik edandako ardoak oxigenazioa egiten dik berez eta, zer esanik ez, askoz hobeto sartzen duk. Zahatoak egiten dik ardoa. Nirean edozein ardo sartuta ere, ardo on bihurtzen dik.

—Mezatan bezala, ezta? Mirariak egiten ditu zure zahatoak ardotan —Anamarik.

—Oxigenoa eman ohi dit behinik behin.

—Bai, bide batez, oxigenoa da, aita, etxe honetan behar duguna. Bada, dagoeneko konturatu zara ze toki gutxi daukagun etxean eta, barka, baina, zuretzat hemen lekurik ez dagoela ohartuko zinen...

—Ama! Attunak ez dit trabarik egiten. Biok egiten dugu lo nire gelan gustura asko. Ez joan, Attuna, faborez!

—Bon, nik ez dut diru asko, egia esanda, baina nire egoera legala argitzeko urratsak ematen hasi naiz eta, haien arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata edo gizarte-bazterketaren aurkako diru-laguntzak dagozkidala uste dut. Hori eskuratu bezain laster herrian, edota zuengandik gertu samar bederen, bizitzeko nire tokia lortzen saiatuko naiz.

—Hasi zaitetz bilatzen, beraz.

—Hasia naiz honez gero, noski, baina ez da batere erraza.

—Ez, Attuna. Ez joan berriro. Aspaldidanik zuregandik gertuago egoteko gogoia nuen... oso gauza bitxiak kontatu dizkidazu beti eta asko ikasi dut zure ondoan.

—Lasai, Pello, hik eta biok segituko diagu elkarren berri izaten eta, gainera, hurbil biziko gaituk, ez izan penarik.

—Edozein modutan ere, gauzak argi, aita. Hemen tokia duzu, jakina, halabeharrez, baina hau ez da zure tokia —Anamarik.

—Sukaldean entzunda! —Telesek.

—Isildu zaitetz! —alabak.

—Nik ere maite zaitut, Anamari —aitonak.

—Nik ere bai zu, Attuna! —Pellok.

—Hi ere maite haut, mutiko...

BAZKALONDOA

la hirurak ziren. Ordu horretan, bazkalosteak larrituta, herri osoak lo egiten zuen siestan. Biltegiak, dendak, bulegoak eta abar ez ziren berriz irekitzen lau eta erdiak arte. Tabernak eta txinatarren dendak bakarrik egoten ziren irekita. Etxe gehienek, Le Corbusier-en eredu arrazionalistaren gainean eraikiak, barrutik itxita zituzten ateak eta pertsiana jaitsita. Batzuek parkeko banku batean egiten zuten lo aitona bilobaren ohean seko lo zegoen bitartean.

—Attuna, esnatu!

—Ze gertatzen duk?

—Mugitzen ari zinen hasperenak eginez eta esnatu zaitut.

—Mila esker, mutiko! Suzko garrak inguratuta nengoan eta zeruan ilundu egiten zuan arrats gorria. Jainkoek eta haien paradisiko biztanleek pilota handiak botatzen zitiztean odoleztatuko zeruan... A! ze sentrazio txarra, redioss! Pilotak nire eskuetatik erori egiten zituan etengabe eta hori-gorritz margotutako herrian erortzearekin amets egiten ari ninduan... Dilisten eragina, ziur...

—Edo ardoarena...

—Zer diok?

—Berdin da, amesgaiztoak, Attuna, nik ere badauzkat noizbait.

—“Parkean jolasten bota nuen pilota oraindik ez da lurrera iritsi”

—Ametsetan oraindik?

—Ez, halakoxea bota zian Dylan Thomasek...

—Zure lagun bat?

—Ez, poeta batek idatzi zian hori.

—Ez ditut poetak ezagutzen.

—Nik bai, mutiko.

—Non, Attuna?

—Iparaldean ezkutaturik bizi zen Martin ezagutu nian.

—Martin zer?

—Auskalo, Martin Larralde edo... baina hura ez zuan bere benetako izena izango, ziur... gero nik Genevarako bidea hartu nian eta bera Kubara joan zela uste diat.

—Eta poeta zen?

—Denok ginen poeta, orduan, abangoardiako artista hutsak!

—Zer?

—Abangoardiakoak gintuan, baina ez bakarrik ohiko esanahi militar edo politikoan, erromantikoak gintuan, Erromantizismo historikoaren lehenengo idazleek egiten zutena egin nahi genuelako geuk ere: herritik gertu bizi eta harengandik ikasi geure hizkuntza eta naturarekiko portaera, mundu berri bat sortzeko eta gizarte justuagoa eta ederragoa gauzatu ahal izateko.

—Eta zeuek ere idazten zenuten...

—Idatzi eta irakurri bai, baina, gehienetan, hitz egiten genian gure artean, baita modu sortzailean bizi ere, egunaren gurpilari loturik baina errutinarik gabeko ezerezaren erdian, bizitza aldakorrean sustraiturik baina, horretan ere, errotu gabeak. Gazte eroak gintuan gu...

—Zaila da ulertzen... zuek ez al zineten erbesteratu politikoak?

—Baina guretzat politikoa ez zuan ohiko politika, ordea. Begira, esaten ditek Flaubert idazlea behin Napoleon printzea bisitatzera joan zela eta ez zuela lortu, baina, itxarongelan zegoenean, ingurukoak politikaz hizketan aditu zituela etengabe eta bukaeran, irtetean, honako esaldi tristea bota zuela: “Horren da handia giza ergelkeria!”. Guk, gutxi gorabehera, horixe uste genian ohiko politikaz, ergelentzako asto-lana zela, alegia. Gu, Flaubert bezala, artista gintuan! Bon, utz dezagun aspaldiko sasoi nahasi hori bakean, buelta bat ematera noak ea burua ere lasaitzen eta argitzen zaidan.

—Ongi da, gero arte... afaltzera etorriko al zara?

—Dударik ez izan.

Itsasoko bidean pentsamendua etorri zitzaion gogora:

“Urte asko dira aberritik kanpo bizi naizela eta itzultzearen ideiaz etsi egin dut behin baino gehiagotan. Nire jendea ez nukeela sekula gehiago ikusiko pentsatu dut maiz, baina ez zitzaidan inoiz bururatuko hemengo portuan berriro ere Espainiako bandera haizeak harrotzen ikusiko nuela. Nik uste dut ez dudala nire bekokia kolore horien aurrean makurtuko; izan ere, atzerrian arrotz bizi arren, nire herrian ere horrela bizi beharra izango litzateke sakrifiziorik handiena, alegia,

berriz nirea ez den beste banderapean bizitzeko behartuta egotea; halere, itsasontzi guztiek piperpotoa daramate oraindik, baita Balentziaga Astiñenean egiten ari diren handikote haiek ere”.

Aldapa jaitsi ondoren Herriko Tabernara, Inpernupera, sartu zen, berarentzat erabat berria zena, eta hantxe, basoerdi bat edanez eta oroitzapen atseginak berreskuratzen zituen bitartean, Telesek ezin izan zion kuadrillaren aspaldiko erretratua egiteari utzi, bere oroimena xahutuz iragan urrunetik etorritako seinale baten bila, gizon horietako batek bizitza aldatu ziola jakinda, haien artean bere salataria zein izan ote zen markatzeko aukera emanez; haren aurrean, mahaiaren kontrako goiburuan, Zarautz hitz egiten ari zen, alkoholak fisikoki suntsituta, baina betiko distirarekin.

Teles, berriro ere, poliziaz gogoratu zen, hark, bere aurka egin zituen akusazioez, eta berriro sumindu zen nola azaldu zizkieten gogoratzean. Poliziek ere bere lehentasun politikoak zuhurtasunez aztertu zituztela esan eta, mehatxupean, salatzaile izateko eskaera nola egin zioten. Berriz, une jakin batean, poliziek bai berari buruz baita Zarautzi buruzko informazioa ere lortzeko bideak nondik eskuratu zituzten pentsatzen hasi zen.

Balitzko traidorea ikusteak hankaz gora jarri zituen bere erresuminak: barran gizon bat zegoen aurpegia puntu gorritz markatuta. Dardarak ezkututzen zituen esku batekin Zarautzek, eta edalontzia ezpainetara altxatzen saiatzen zen. Ikusi gabe zeramatzan berrogei urteak, askoz ere suntsitzaileagoak iruditu zitzaizkion Telesi aspaldiko lagunaren soinean. Beste leku eta egoera batean, agian, ez zen Zarautzekin mintzatuko baina, azkenean, hitz egin zuen iraganeko adiskidearen irudi gastatu harekin:

—Zer moduz zaude, Beltza? — galdetu zion Zarautzek.

—Oraintxe bertan ez dakit —aitortu zuen Telesek.

—Biok engainatu gintuzten —esan zuen Zarautzek, eta Teles ohartu zen haren ahotsak betiko bizitasuna berreskuratzen zuela, betidaniko Zarautz izango balitz bezala, eta haren hitzek egia soil bat esango balute moduan.

Telesek nahiago izango zuen edozein irain entzun, are eraso jasan ere, entzun zuena aditzea baino. Haserreak berriro menderatu zuen bere burua, modu bortitzean, eta urtetako gorrotoaren zorneak, etsipenaren eta mendeku-gosearen leherketa eragin zuen beregan.

Ezkutuan zuen zigarretak airean egin zuen hegan, indar handiaz botata eta lepoko zainak odolez bete zitzaizkion.

—Baina kabroia zara, gero! Nork engainatu gintuen? Zuk salatu ninduzun eta! Zuk mila kaka bota zenuen nitaz... Zure erruagatik, bizitza desegin zidaten. Nork engainatu gintuen? Zuk gezurra esan zenidan! Nik uste nuen zu nire laguna zinela, baina beldurtiegia zara inoren lagun izateko.

Txokoan, bere hanken artean begirada galduta, defentsak altxatzeko ahaleginik egin gabe, Zarautzek utzi zuen akusazioak haren gainera erortzen, euri bero bat bezala.

Beste zigarreta bat pizten ari zela, Telesek ikuskizun tristea sumatu zuen aurrean. Bere zorigaitzaren errudun nagusiari buruzko amorrua botata, lehen bezain etsita sentitzen zen.

—Barkatu, hemen ezin da erre —zerbitzariak.

—Barkatu zuk... —zigarreta boteaz, Telesek.

—Biok engainatu gintuzten —errepikatu zuen lagunak, eta, azkenean, aurrez aurre begiratu zion. Bere begietan hezetasun kezagarria eta erronka iraunkorra zeuden.

Telesek uste zuen eraso egingo ziola bertatik bertara... Zarautzek engainuaren ideia hura behin eta berriz azpimarratzeak sumindura hilgarria eragiten zion, baina lagun ohiaren itxura eroria bezain trinkoak ia baliorik gabe utzi zuen hasierako sentimendu gogor hura.

—Zer irabazten nuen nik gezur bat esatearekin, zu salatzearekin, alegia? Esadazu niri, Teles, zer irabazten nuen edozein modutan preso sartuko baninduten? Nik ez nizun ezer leporatu. Baina haiek esan zuten nik esan niela eta zuk sinetsi... haiei, ez niri. Bada marka!

—Nondik ateratzen duzu zuk kaka hori guztia? —Teles zutik jarri zen pixkanaka.

—Haiek esan zidatenarekin badakit, ostia, ño! —garrasi egin eta bere lekua ere utzi zuen. Bat-batean, Zarautzen zuhurtzia eta lotsa desagertu ziren.

—Baina ez al duzu ulertzen? Engainatu egin gintuzten, biok. Ene, Teles, edo tranpa bat jarri ziguten, edo nik egiten nuena eta nekiena leporatu zidan norbaitek, eta horrek berak salatu zintuen...

—Utzi kontuak, Zarautz, ez nauzu konbentzituko.

—Konbentzituko zaitut —behin eta berriz esan zuen, bizitzan zeukan eginkizun bakarra Teles konbentzitzea balitz bezala.

Zarautzek zioenaren zerbaitek zalantzan jartzen zuen bere erbestealdi osoan zehar Telesek ziurtasun iraunkorraz pentsatu zuena, alegia, aspaldiko bere aburuaren aurka, ustezko salatariak erakusten baitzion orain bere ihesarekin azaldu zuen berezko ahultasuna. Hala eta guztiz ere, honela erantzun zion:

—Jakina ezetz...

—Begira, Teles, egunen batean kontatuko dizut zer gertatu zen preso egon nintzen garaian... Zuk ez duzu imajinatu ere egiten. Baina pentsatzeko denbora sobera eduki dut eta orain badakit engainatu egin gintuztela, norbaitek salatu gintuelako.

Alabaren etxerako bidean Zarautzek esandakoaz hasi zen hausnartzen. Hark ustez salatutakoaz, hura izan baitzen erbesterako lehen urratsa. Ordura arte, Telesek ez zuen inoiz pentsatu beste leku batean bizitzea merezi zuenik, eta, inoiz, gazte garaian egindako irakurketei esker, bidaiatzea eta munduko leku enblematikoak ezagutzea amestu bazuen ere, Alpeak, Himalaia, Afrika, New York, Paris edo Buenos Aires... azkenean Zumaiaz maitemindu zen nahiz eta Paris eta, batik bat, Geneva, berak nahi baino gehiago ezagutu beharko zituen.

Zumaia oroitzapenez betetako herria zen, eta bere zentzumenez bidaiatzen zuen beti hartaraino, usainez, argi-ilunez, ametsez eta maitasunez gozatuz.

Fede politikoaren gazte egun haietan, Telesek gizon zoriontsutzat jotzen zuen bere burua, eta bere aurrean etorkizun lasai eta goranzkoa irekitzen zela uste zuen, alde egin behar zuen arte.

—Kaixo, Attuna!

—Hara, hi ere hemendik...

—Etxeko bidean, noski. Zu, zer moduz?

—Aspaldiko ezagun bat aurkitu berri diat.

—Zein?

—Zarautz.

—Aizu, Zarautz herri bat da, ez pertsona bat.

—Bazekiat, noski, baina nire lagunari horrela deitu ohi genioan.

—Zarauztarra da, ala?

—Ez, Itzurun baino zumaiarragoa duk jaiotzez eta izatez, baina, gaztetan, oso harroa zenez, igeriketan hemendik Zarautzeraino egin zezakeela esaten zian... eta handik zetorkiok ezizena.

—Hori ezinezkoa da!

—Agian bai, edo ez... auskalo!, baina hark behin halakoa bota zian kuadrilla guztiaren aurrean eta gaitzizen horrekin geratu zuan betiko... Askotan honakoa zetorkidak burura, zera, basoan nagok, artadi erraldoi baten erdian, eta adar-sare batean galdu naizela uste diat, eta oihu bat entzun diat, eta gero ezer ez; soroetara ateratzen nauk eta ikusten diat Zumaia ere itsasorik eta bizitzarik gabeko zelaia dela, eta, orduan, dena gau itxi bihurtu dela ohartuta, iruditzen zaidak abesti bat entzuten dela urruntasunean; haurtzaroan ikasi nuena, eta noizean behin itzuli egiten dena, baina, orain, zahartu egin nauk eta ez zeukaat dagoeneko pentsamendu hori buruaren bueltan...

—Zer diozu, Attuna?

—Nire gauzak, mutiko, ahaztu ezak!

—San Miel Artaditik Zumaia ikusten da...

—Ez duk hori... lasai... Zarautz nire aspaldiko lagun horrekin topo egin diat Inpernupen...

—Itsaslabarreko arroketa?

—Ez, tabernan, eta nire amesgaiztoetan bezala, agian galdua bezain oker nengoela hasia nauk pentsatzen.

—Non?

—Inon ez! Berarekin erratu ez ote naizen pentsatzen hasi naizela.

—Zertaz, Attuna?

—Nire gauzak dituk, Pello, ahantz ezak!

AFARIA

—Hara, karakola eta barea badatoz!

—Zer gertatzen da?

—Afaría prest dago baina mahaia jarri beharra dago!

—Berehala!

—Regina etorri da, aita, zurekin hitz egin nahi duela.

—Geratu ahal izateko telefonorik utzi al du?

—Berak ez du erabiltzen, badakizu, garai haietatik eratorriko ohitura zaharra...

—Orduan, nola geratuko gara?

—Orduan bezala zita jarri dizu. Bihar hamaiketan Inpernupen.

—Itsaslabarreko arroketa edo tabernan?

—Baita Katuplazan ere! Zu ez zara flyscha ikustera etorri, aizu... tabernan noski.

—Eta gaur, ama, nola egingo dugu lo?

—Beti bezala, zuek elkarrekin eta ni bakarrik.

—Birus gaizto bat datorrela diote eta etxe honetan ez dugu espazio handirik. Ez edukitzearren, ez daukagu ezta balkoi ziztrinik ere! —Pellok.

—Eta birus gaiztoa, honezkero, etorri zaigu jada hona! —Anamarik.

—Ez esan hori, ama! Attuna ez da gaiztoa!

—Lasai, Pello, txantxetan esaten dik... nik ere maite zaitut, Anamari!

Betiko lehia sumatzen zen aita-alabaren artean. Telesen bikotea hil zenean bera ez zegoen etxean eta ezin izan zuen bere ondoan ezertan lagundu eta, are gutxiago, behar bezalako agurrik eman. Pello jaio zenean ere, Anamariren aita nonbaiten ezkutaturik egongo ote zen batek daki, baina, Zumaian behintzat, ez zegoen. Horrela izan zen haien arteko harremanen etena edozeinen bizitzatarako funtsezkoak izaten diren egoeretan, behin eta berriro, ia salbuespenik gabe, eta Anamarik faktura haiek kobratzeke zituen.

—Telebistan, agian, birusaren etorrera dela eta, jende guztia kalera atera gabe geratuko dela esan omen dute.

—Nahikoa lan... eta eskolak? Eta erosketak...? Ez da posible!

—Nik horretarako ohitura badut. Egon naiz Parisen eta Genevan baina ez ditut apenas ezagutzen, ia denbora guztia ezkutaturik bizi izan naiz haietan.

—Baina jende guztia ez da zure kastakoa, aita.

—Hemendik alde egitea, bale, Attuna, poliziaren beldur egon nahi ez izatea ulertzen dut, baina, hemendik kanpo ere bai?

—Bai horixe, itzalean bizi nauk ni urteetan. Terroristatzat jotzen gintiztean eta guk, berriz, le soleil n'est pas pour nous, "eguzkia ez duk guretzat" esaera zaharrear sinesten genian.

—Bueno, aita, eman bakea, dagoeneko eguzkia joana da eta hemen zer jatekorik badugu, eduki.

—Ados, zahatoa pasa, arren.

—Gorroto dut puztutako larru zikin hori, aizu!

—Nik, berriz, hutsik eta puztu gabe dagoenean gorrotatzen dut...

—Begira, hemen daukazu, aita, olagarro salda.

—Boa, pulpo sopa, maite dut gure tropa!

—Otorduak baino lehenago edateak ez dizu onik egiten!

—Ezta gizonik egiten!

—Isildu behingoz eta jan zerbait, Erribera kaleko geltoki guztietan geratu zarela ematen du eta!

—Egia esanda Erribera kalean jende askorekin geratu naiz hizketan tabernetara sartu beharrik gabe. Lutzirekin egon naiz, adibidez...

—Ez al zara ibili Inpernupen Zarautz zurruteroarekin?

—Herri santu honetan dena jakiten da!

—Horixe baietz!

—Den-dena ez omen da jakiten. Esaterako, Lutzik, dagoeneko, euskaraz ere ez daki. Nik gogoratzen dut txikitan gurekin jolasean eta, guk bezala, gaztelera ia ez zekiela. Egun, berriz, ez da gauza izan hitz pare bat lotzeko ere... ze gauzak!

—Ze espero zenuen, Attuna, nire eskolan euskara gelan barruan besterik ez da entzuten, behin patiora edo kalera joanda, akabo euskara.

—Bai motel, gure garaian, Franco hil ondoren, esaten genian: “Berrogei urte eta gero hau”.
Nire kanpoko berrogeialdia bete ondoren gauza bera errepikatu beharko nitek.

—Erribera kaleko adierazpen askatasunaren txokoa ikusi al duzu? —Pellok.

—Koloretako Gernikaz margotutako kantoia? Bai, noski. Ederra duk.

—Laurogeita zortzigarrena...

—Zer diok?

—Aurreko Udalak debekatu zuen horma horretan margoak egitea baina, urteetan zehar, munipen eta artisten arteko borrokak direla medio, laurogeita zortzi mural marraztu eta ezabatu ziren egindako azkena finkaturik geratu arte.

—Adierazpen askatasunik gabe ez zagok ezer! Izan ere, gizakiek adierazpen askatasunaz gozatzea jende arruntaren helburu gorentzat jo zuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta haren defentsa bere garaian izan zituan gure borrokaren oinarria ere...

—Olagarroa ere errepikatzeko, aita?

—Bai, dagoen bitartean eskola zaharreko ez diogu jatekoari inoiz laga. Heziketa kontua izango da!

—Mesedez, zu hezigaitza izan zara beti!

—Attuna, ez al zinen kanpora joan arazo politikoengatik?

—Horri taxuz erantzutea eta behar bezala azaltzea, mutiko, erraza eta zaila duk aldi berean. Polizia nire atzetik zebilela jakin bezain laster ezkutatu ninduan Iraetan, baina, ekaitzak ez zuela baretzen ikusita, atzerrirako bidea hartu nian. Reginarekin joan ninduan Dantxarinera eta hantxe, erreka pasa ondoren, hasi ninduan nire berrogei urteko bidaia.

—Baina Franco hilik zegoen jada...

—Bai, eta sozialistak Madrilgo Gobernuan, baina ez zegoan errukirik guretzat, jazarpenak eta “inkontrolatuak”, baita tortura latzak ere, eguneko ogia... galdetu bestela Txomini edo orduko edonori...

—Aita, urteak badira Txomin ez dela herritik azaldu ere egiten...

—Pentsa... joan aurretik gutuna utzi nian Indamendi elkartean, ardo botilen artean ezkutaturik...

—Gizonen kontuak, nola ez!

—Nik ezin nian hemengo egoera jasan. Kontrolak toki guztietan, izua eta tristura. Jendeak ez zian lasai hitz egiteko adorerik, bakoitza bere etxean gordetzen eta, lagunartean ere, mesfidantza nagusi zuan. Baina nik kamiseta gorria baino gehiago nian herritik jaso. Horrek eraman nindian erbestera. Adiskidetasun faltak, giro doilor bezain otzanak eta kritikarako gaitasunik ezak. Herri domestikatua bihurtuta geundean. Frankismoarekiko haustura edo sistemaren erreforma zuan orduko bidegurutzea eta nik, beti bezala, bide okerra aukeratu nian, nonbait, eta ordainarazi egin zidatean.

—Aita, ni bihar lanera noa, etorri den birus madarikatuak baimentzen badu behintzat, baina ez dakit noiz arte ibiliko garen horrela, landuna eta lanik gabea txandakatuz, sortu den egoera tamalgarri honetan. Beraz, nire lotarako tokia libratu hementxe eta zuek joan logelara zuen berriktarekin jarraitzeko.

—Goazen, Attuna, zure istorioekin segitu nahi dut eta!

GOSARIA

Inpernupeko lokalaren sarreran egurrezko banku bat zegoen leihoaren ondoan. Eserlekuaren bizkarraldearen kontra jausi zen Regina, eta irribarre egin zuen. Bere soinekoaren poltsikotik zigarro-kaxa eta pospoloak atera zituen.

—Beraz, oraindik erretzen duzu? —harritu egin zen Teles.

—Oraintxe utzi?

—Nik egunero utzi nahi dut..., baina ez naiz behar beste ahalegintzen —aitortu zion Telesek.

—Zeinen ona, Teles, hemen zaude! Askotan pentsatu nuen hil egingo nintzela berriro zu ikusi gabe —esan zuen Reginak—. Tira, kontatu zure bizitzaz...

Telesek zigarroa ahora eraman eta kea kanporatzen zuela ikusi zuen. Erretzea, berarentzat, plazer handiko ekintza zela zirudien.

—Asko pasatu zait, eta ez zait ezer gertatu —erantzun zion Telesek azken buruan, eta azken berrogei urteetako gorabeherak laburbiltzen saiatu zen.

—Orduan etxekoekin egoteko etorri zara?

—Bai, batez ere...

—Pozten nau entzuteak. Horrek esan nahi du ez zarela garaitua izan. Nik uste nuen zu ez zinela joango.

—Bada, ikusten duzu, ni joan nintzen eta zuk hemen jarraitzen duzu.

—Eta hori ez diot inoiz nire buruari barkatuko —bota zuen Reginak, baieztapen hark erre egingo balio bezala. Une batez zigarrotxoari begiratu zion, azken kalada eman eta bota zuen. Telesek isilik egotea erabaki zuen, agerpen horrekin harrিতuta, berehala entzungo zuena imajinatu gabe—. Nik salbatu nezakeen zure burua...

—Nola, baina?

—Komisarian zure grabazio bat jarri eta gero zuri buruzko txosten bat ere erakutsi zidaten. Han, terrorista izateaz, laneko propaganda banatzeaz eta lan politiko separatistak egiteaz akusatzen zintuzten, hemen orduko edozein pertsona kritikori lepora zekizkiokeen gauza horiek guztiak. Haiek, halere, esan zidaten hori ez zela larria. Eta une horretan egin behar nuena egin

nuen: denaz zuri ohartarazi eta alde egiteko lagundu, baina ziur nago ez zela horrenbesterako, ez nuela behar adina indarrik egin eta zu galtzeko erruduna izan naizela.

Eztarria nola lehortzen zitzaion sentitu zuen Telesek. Izan ere, norbaiten aitortza goibel batek eta beste pertsona batzuen erabakirik ezak irabazi zuten borroka. Norbaitek salatu zuen baina, agian, ez zuen kanporako bidea hartu behar... Patuaren zentzugabekeria barregarria iruditzen zitzaion orain.

—Ez, Regina, nik uste dut norbaitek akusatu ninduela eta beste aukerarik ez nuela izan. Argi esan nizun: “Ez naute kartzelan sartuko”. Nik erabaki nuen.

Horretan azaldu zen Zarautz basoerdia eskuan.

—Hiltzen ari zara, Zarautz.

—Aspalditik hilda nagoela esan nizun. Ikusten ari zarena inertzia hutsa da...

—Zergatik edaten duzu?

—Nahi dudalako, Beltza. Gustatzen zaidalako eta nahi dudalako. Horixe bakarrik egin dezakedalako.

—Zu gustura horrela?

—Mundu guztia hiltzen da —esan zuen—. Denbora eta forma kontua da.

—Hain zoratuta zaude?

—Ez dakit, baina uste dut merezi izan duela zurekin hitz egiteak.

—Eta traidorea? —galdetu zuen Telesek.

—Zergatik ari zara horretaz hitz egiten?

—Zu ez bazara, ez zen traidorerik izan.

Zarautzek irribarre egin zuen.

—Barkatu dituzu hildako guztiak?

—Baietz uste dut.

—Zuk jakingo...! Eta zergatik uste duzu ni izan nintzela?

—Zuk besteek adina zenekielako... baina min handia emango lidake zu izan bazina.

—Baina orain baietz uste baduzu, agian nik...

—Zarautz, iritsi nintzenetik esan nizun: ahantz dezagun hau.

—Hainbeste izorratu ondoren, orain ez duzu hitz egin nahi... Berrogei urte pasa ondoren, zure lagun batek txibatazioa eman zuela pentsatuz, orain mundu guztia barkatzen duzu eta gu lasai gelditu behar... Joño, Beltza, ze baboa zaren!

—Ez jarraitu, Zarautz.

—Jarraitu egingo dut, nire bizitzan geratzen zaidan gauza onena nire lagunak direlako.

—Baina laga edaria, erredio!

—Ezetz! Hori da nire borondatez egiten dudana gauza bakarra —esan eta altxatu zuen edalontzia—. Eta bihar hilko banaiz, primeran! Agian horrela ez naiz enteratuko!

—Okerrena da ez zarela bihar hilko.

—Egia da, atzo edo duela berrogei urte hil nintzen. Ez naiz gogoratzen noiz hil nintzen ere! Telesek tragoa husten ikusi zuen eta errai guztiak bihurritu zitzaizkion.

—Nik orain badakit zu ez zinela izan —esan zuen.

—Begira, Beltza, nik ere esan nizun lehenago: ez zen inor izan. Eta ez inor baino ederragoak garelako, ezta gutxiago ere: estutzen bazintuzten, gutako edozeinek esan zezakeen edozer, baita edonori edozer gauza leporatu ere. Baina kasualitatea izan zen ez zigutela galdetu... baina hatza zaurian sartzen segitu eta hondoraino tenkatu egin duzu. Eta horrela jarraituz gero nik ez dizut barkatuko.

—Orain, kabroia neu naiz, beraz... Tira, utzi hori, mozkortuta zaude.

—Bai, baina mozkorrek egia esaten dute. Orain trago bat nahi al duzu?

Eta Telesek esan zuen:

—Tira, atera beltz bat.

GILTZAPEAN

Setio egoera. Noraino iritsi ginen? Mundu osoa etxean giltzapeturik martxotik udara bitartean. Gurean Anamari bakarrik irten zen otorduak prestatzeko jakien bila, baina Pello eta biok denbora guztia etxetik atera gabe egon ginen kasik. Harrigarria bada ere ez genuen zama hori gaizki eraman, guk biok bederen. Anamari, berriz, pittinka joan zen amiltzen. Haren indarra ahitzearekin batera isiltzen joan eta otzantasunak ordezkatu zuen ohiko egoskorkeria. Gogo-hila, ahuldua, galdua eta saldua geratu zen. Maripetralin zena, beti suminduta eta, itxuraz, erdi haserre eta egoskortua zena, hauskor bezain txori-kaka ñimiño bilakatu zen. Uhertu. Jota. Errea. Ezindua.

COVID19-krisiari gerra gisa aurre egin nahi izanak edozein eztabaida itxi zuen (gerran obeditu egiten baita baina ez da eztabaidatzen), eta zalantzak zituena edo kritikak egiten zituena saboteatzaile arriskutsu bihurtu zituzten (“negazionista” izendapena izan zen usu erabilitako iraina). Ez zen, bada, lasaitasun soziala sustatu gizartearen agintea baizik. Zergatik? Seguruenik, izualdi kolektiboa baretu nahian mesfidantza gizarte joerak baztertzeko. Beldurra astintzeak pandemiaren funtsezko oinarriei buruz ez hausnartzea erraztu zuen, hau da, sistema ekonomikoaren edota balizko animalien eta gizakiaren jauziaren arteko erlazioari buruzko gogoeta konpartitua eragotzi zen eta gure zaharrak egoitzetatik babesteko ezintasun latza ekarri zuen. Haietan, zaharren egoitzetan alegia, hildakoak pilatu egin ziren; eta zentzugabea da pentsatzea konfinamenduak babestu egin zuela populazio ahul hori, heriotzen ia % 50 bihurtu ziren, eta, ondorioz, birusaren hilgarritasuna hilgarriago gisa agerrarazi zen.

Honen aurrean benetako oposiziorik ez zegoen. Latza izan zen baina ez dena. Izan ere, ez dakit Reginak zer egin zuen, baina nik behintzat, erretzeari utzi nion.

Anamari, lehen beti errieta egiten zidana, mutu zegoen, baina neronek, bera ez tristatzeagatik, ez nuen nire ohiko zigarretarik pizten eta horrela, pixkanaka, berrogei urtean erdiesterik izan ez nuena berrogeialdian gauzatu nuen. Tabakorik gabeko gizona bihurtu nintzen.

Bilobarekiko harremana, berriz, estutzen joan zen. Nik, konfinamendurako agindua etorri aurretik, bizitzeko toki bat edo beste bilatu arren ez nuen taxuzko ezer aurkitu, eta Anamariren etxeko Pelloren gelan geratu nintzen, halabeharrez. Biok egunero qigong ariketak egiten ohitu ginen elkarrekin, baina, halere, nik hikaz hitz egin arren hark zukaz ihardesten zidan beti. Nik pena

nuen zeren Herrian hikaren desagerpena nabarmena baitzen oso. Jendeak euskara ezagutzen zuela begi-bistakoa zen baina erabili, aldiz, ez asko. Guk euskal iraultza nahi genuen eta, ordainean, haren inboluzioa ari ginen bizitzen. Lutxi lekuko.

Bilobaren eta nire gazte eroen garaiko sentimenduen artean, ordea, sintonia bazegoen. Gero eta estuagoa, gainera.

Pello harriduraz ohartzen zen jendearen mirabetzaz eta nik, nire motzean, De La Boétieri buruz hitz egin nion. Étienne de La Boétie-ren testua irakurri nuen frantsesez gazte sasoiaren eta bertan, pertsona bakoitzean habia egiten duen eta ezkontide politikoak batzen dituen munstroa aurkitu nuen. Eta, bere diskurtsoak herriak jasaten zuen zauri hori sendatzeko asmorik ez bazuen ere, mende batzuk geroago, tiranien esperientziarekin, handituz joan da bere mezuaren funtsa eta saiakera garrantzitsu bihurtu da guztiontzat; izan ere, berak zioen moduan, mendetasun basatiena ez ohi da izaten indarraren bidez agertzen dena, herri-hautespen eta ohitura pasibotasunaren bidez gauzatzen dena baizik. Horixe bera ari ginen ikusten gure aurrean egunero!

Biloba, jarrera horren aurka borrokatzearen, pandemiari buruzko eztabaidak zabaltzen hasi zen, eta Gobernuak, zientifikoek eta iritzi publikoak barreiatuak teoriak kolokan jartzen ere bai. Erantzuna basatia izan zen, ordea. Sinatua eta sinatu gabea. Zaplaztekoak nonahitik zetozkion. Sare sozialetan negazionista deitzearekin batera Migel Bosé horrekin alderatzen zuten... “Hauxe lixibaz sendatu nahian al zabiltza” esaten zioten eta, borondate onez aritutako gure Pello gaztea ozpintzen hasi zen. Nirekin mintzatu beharrean denbora gehiena pasatu zuen inoiz esan ez zuena, baina, bere ahoan jartzen zutena alferrik ezeztatzen. Areago, bilobaren balizko artikulua faltsua sareetan zabalduta zen, non baieztatzen omen zuen, osasun arazorik ez zuenez, arraza aratzen aldekoa zela eta, beraz, zuri supremazista eta arrazista...

Udaran, berriz, lagunekin elkartzen saiatu zenean, “kale zurruta” egiteagatik atxilotu zuten.

Baten batek salatu zuen Narrondo ondoko geltoki zaharraren aurrean arratsaldeko zortzietatik aurrera gazte talde bat zegoela lata batzuk edaten eta hizketan. Epaketan ere lekuko anonimo batek eman zuen haien aurkako testigantza. Badakizue, “herritarren kolaborazioa” zela medio kondenatuak izan ziren, baina Pellok eskuratu berria zuen adinaren nagusitasuna, ordea, ondo ordaindu behar izan zuen. Autoritateari erasotzeagatik eta epaiketa azkarra eginez, 18 urteak bete berriak zituenez, kartzelara joan beharra zegoela abisatu ziguten.

Jakina, Iparragirrereren bertsoa etorri zitzaidan gogora:

Zibilak esan naute
bizi egoki
Tolosan biar dala
gauza erabaki
giltzapian sartu naute
poliki poliki
negar egingo luke
nere amak baleki.

Jesus tribunalian
zutenian sartu
etzion Pilatosek
kulparik bilatu.
Neri ere ez arkitu
ez naute barkatu
zergatik ez dituzte
eskuak garbitu.

Kartzelatik aterata
fiskalen etxera
abisatu zidaten
juateko beriala
ez etortzeko geiago
probintzi honetara
ordu hartu nuan
Santander aldera.

Santanderretik ez, nik ondo ezagutu nuen Genevatik etorri zitzaidan gutuna udazkenean:

Kaixo, Attuna, zer moduz etxean? Frantsesa hobetzen ari nauk erositako Borgesen antologia elebidunari esker. Badakik, Étienne de La Boétie-ren lagun mina zuan Rousseuren Genevako etxetik gertu zagok Borgesen bizitokia izan zena, kale nagusian.

Ni Plainpalais plazaren inguruan ari nauk bizitzen, Getariako Arantxak, Reginaren eta Joanitaren lagun zaharra, bilatutako toki batean. Bertako azoka zaharrean denetarik lortzerik bazagok, patatetatik berokira, bigarren eskuko txirringatik bigarren irakurketa merezi duten liburuetara, eta unibertsitatea ere bertatik bertara zeukeat. Handik, oinez, artisten herrixkara, Carouge-ra, erraz iristen duk... zuetako bat bihurtuko nauk Attuna, courage! Eta nahi izanez gero, Salève mendira joaterik bazagok. Handik aise pasa nian muga hona etortzeko. Inguru hauetatik gertu ibili zituan bere garaian Ramon Saizarbitoria edo Mikel Lasa euskal idazleak, nahiz eta, berez, Friburgon bizi, eta hemendik bertatik ihes egin zian J.J. Rousseauk berak insumisioaren premiaz fisikoki nik burututako kontrako bidea hartuz, baina, funtsean, nire oraingo noranzko bertsean.

Argi esan nian, “ni ez naitek kartzelan sartuko”... Attuna, nirea ez duk ihesaldia izan, orduko erbestealdian herorrek egin bezala, oraingo honetan niri zegozkidan borrokaren ardatzak, arauak eta eremuak gure beharretara egokitzeke deliberoa hartu diat, besterik ez.

Hik, bide hartatik zirenak eta ez zirenak egin behar izandakoa haiz. Egindako guztiez harro izan gabe egongo haiz eta egindako guztia ez huen errepikatuko ziur asko, baina egin behar zena egin huela uste diat, nahiz eta, hik kontatutakoaren arabera, horrek gertuko lagunez mesfidatzera eraman eta beti beldurrez bizitzera behartu, motxila txiki bat lagun.

Niri ere min egiten zidak mundua eraldatzeko hautu exkaxek munduak neroni aldatzea ekartzea. Gazte izaten segitu nahi diat, hi bezainbeste behintzat, herrenaren ibilera eta guzti, baina makilarik gabe pausoak harro ematen zapatila fosforitoz. Kontuz, neronek ere berdina zeuzkeat eta!

Bazekiat hire garaiko orduko sasi-frankistak demokrata bihurtu zirela eta, orain demokratak bezala, disidentzia ororen inkisidore postmodernoa dauzkagula.

Askatasuna aldatu ditek, hire garaiko Euskadi ere aldatu ditek, bistan duk hire garaiko Euskadi Ta Askatasunak gaur ez duela balio. Boladan dabilen jendeak bazekik. Nik modaz kanpo bizi nahi diat, hik bezala, eta, erabakitakoarekin ez diat agintzen duen bizi sistemak behartutako egia lantzeko arauekin bat egiterik nahi.

Hi bezain erromantiko naukak, Attuna, eta, zumaiarra izaki, Aita Marirekin gogoratzen nauk egoera honetan. Berak, neroni bezala, familia apal batean jaio eta bere bidea egin zian. Galernak itsasertzaren aurrean eztanda egin zuenean, itsasoaren indarkeriaren beldurrez erreskatara irteteko inor ausartu ez zenean, Aita Mari itsasora atera eta itsasoan erdi-itoak eta baita amiltzear ere zeuden guztiak salbatzea lortu zian. Pertsona garen aldetik, noren antza eduki nahi dugun erabaki beharra zagok. Ausardia handiz itsasoratzen den marinela, bizitza besteen alde arriskatuz eredutzat hartu, edo hainbeste beldurra izan dezakeen gure gizarte honetan besterik gabe iraun, besteen sufrimenduaren aurrean bihozgabe bihurturik. Nik aita ez nian ezagutu apenas. Aita Mari eta hi, Attuna, zarete nire adi-bideak...

Muxu handi bat amari eta hiri, ene Attuna kuttuna, besarkada estua,
Hurren arte,

Pello.

Nik, bestalde, primeran ulertu nuen bilobak niri hikaz idatzitako lehendabiziko eskutitza. Areago, ahalegin horretan belaunak txikitu arte, Lur planeta osoa korritu behar bada ere, egin dezagun, egin dezala, nork bere bidea.

Genevan nengoela, neguko gau hotz batean ezagutu nuen emakume bat gogoratzen dut. Dena elurtuta zegoen eta sekulako hotza egiten zuen, eta Suitzan hotz handia egin dezake...! Bada, andre zaharrak etxera eraman ninduen, elikatu eta beroki bat eman zidan. Zergatik? Inoiz ez dut aurkitu horren azalpenik. Orduan uste nuen emakume hark nigandik zerbait nahi zuela. Baina zer? Eta, hala bazen, emakumeak ez zidan inoiz eskaerarik egin. Jana eman zidan eta beroki beroa lortu zuen niretzat trukean ezer eskatu gabe. Ez zuen zentzurik. Sarritan pentsatu izan dut andre zahar enigmatiko horri buruz.

Anamarik etxean berarekin geratzeko eskatu dit. Bakarrik bizitzeko ez duela gogorik eta sofán lo egiten ohituta dagoela, Pelloren gelan gelditzeko dio, bera itzuli arte behinik behin.

Oraingo honetan, egunsentiari antzemateko gauza naizen bitartean behintzat, ni egongo naiz Zumaian Pelloren zain, txirrinak jo ezkerreko hari atea irekitzeko, eta biok joango gara Erribera kaleko adierazpen askatasunaren txokora, koloretako Gernikaz margotutako kantoiaz gozatzera eta Erribera kalean ardo pare bat hartzera...

Bitartean, gauzak nola diren...! Ilunben nago, txertatzeke eta Zerubiderik sumatu gabe.